

## 2010eko apirileko protokoloa: poesia argitalpena

Bertaratuak: Elena, Hedoi, Xabi, Petra, Naroa, Eli

Martxoko bileran hitz egindakoaren arabera, poesia argitalpena bi alerekin hasiko genuke. Batetik, 2 euskal idalzeren lanak alemaneratuta eta bestetik 2 idazle alemanen lanak euskaratua. Argitalpenak hizkuntza norabideka banatzea erabaki bazen martxoan orain proposamena 1 eta 1 egitea da.

Hautaturiko autoreak: Aresti eta Mirande batetik eta Brecht eta Bachmann bestetik. Aresti eta Brechten artean lotura argi ikusten da. Mirande eta Bachmannen artean loturaren bat ba ote dagoen ikusi beharko da bikote egokia den ikusteko. Bien arteko loturak bilatzen aritu gara, hala nola, bizitza amaiera bertsua izan zuten.

Miranderekin ezkontzeko beste hainbat aukerari buruz ere hitz egin dugu. Hala nola Friederike Mayröcker (1924-) (gaur egungoa, Austriakoa, bizirik dago, aurreko autoreekin sartzeko modukoa?), Paul Celan (Auschwitz en egona, bere buruaz beste egin zuen honek ere), Gottfried Benn (1886-1956) (eskuinekoa).

Miranderekin batera argitaratzekoa bilatzerakoan emakumezkoa izateari lehentasuna eskaini diogu. Baina, derrigor hala izan behar al duen eztabaidan aritu gara.

Lotura apurtzailea egiteko Mirande-Bachmann bikotea egokia iruditu zaigu azkenean. Baina biak lotuko dituen arrazoiren edo ezaugarriren bat bilatu beharko da.

Aresti-Brecht: gizartea aldatu nahia - izaera ofizialagoa, sektore ofizial bat bazuten txalo egingo zieten.

Mirande-Bachmann – gizarteak suntsitu zituen.

Argitalpenek izango luketen luzera. Autoreko 4 olerki aukeratuz gero guztira 16 orrialdeko argitalpenak izango genituzke, hots, 4 poesia bakoitza bere itzulpenarekin (8 orrialde) eta bi autore liburuki bakoitzean. Autoreko 8 olerki hautatzea erabaki dugu, horrela, guztira 32 orrialde izango genituzke. Olerkiez gain sarrera eta autoreen inguruko informazioa ere gehitu beharko dira.

Jarraian olerkiak hautatzeari ekin diogu. Batetik, autore bakoitzaren arlo ezberdinak bildu nahi izan ditugu, hau da, kutsu ezberdinetako lanak bildu eta ez mugatu gai jakin batetara (aldarrikapenezkoak, amodio poemak, etab.). Bestetik, ezagunenak ez ditugu beti bildu, ez geratzeagatik horrexetan soilik, baizik eta ikuspegi zabalagoa eskaini. Arestiren kasuan, adibidez, [www.basquepoetry.com](http://www.basquepoetry.com) helbidean dauden poema ia guztiak kutsu antzekoa dute eta ez dugu aldarrikapenera mugatu nahi zian. "Nire aitaren etxea" ez dugu bildu hautaketan. Arrazoi nagusia ez da izan kasu honetan poemaren zabalkundea. "Nire aitaren etxea" ez zaigu iruditzen oso egokia, euskaraz gehiago erabiltzen baitugu "nire amaren etxea": "amaren etxera noa", "gure amaren etxera", "amarenera noa" edo halakoak.

Hautaturiko poesiak:

### **Aresti**

- Poesia ([www.basquepoetry.com](http://www.basquepoetry.com)) + beste laburren bat
- Zorrotzako portuan aldarrika ([www.basquepoetry.com](http://www.basquepoetry.com))
- Bilbaoko kaleak (Minorisierte Literaturen liburuan itzulia)
- Graziak emanda
- Maldan behera (Untergang izenburua duena)
- Iratzederri liturgiaz entzun artean
- Apur dezadan katea ([www.basquepoetry.com](http://www.basquepoetry.com))
- Egia bat esateagatik ([www.basquepoetry.com](http://www.basquepoetry.com))

### **Brecht**

- Erinnerung an die Maria
- Der Bilbao Song (Arestik Bilbori buruz idatzirikoarekin lotuz)

- Lilurarik ez
- Fragen eines lesenden Arbeiters
- Gaberako aterpea
- An die Nachgeborenen
- Es gibt viele Arten zu töten (Hiltzeko era ugari)

Horiatariko batzuk jadanik itzuliak daude. Laboak kantatzen dituenak esaterako edo "An die Nachgeborenen", batetik Sarrionandiak itzulia (Etorkizuneko jendeari) eta Santi Onaindiak (Geroko gizonei).

Brechten lanetan zortzikoa osatzeko egokia iritzi diogu Arestik edo Mirandek itzuliriko lanen bat hartzea, egon balego. Edorta Jimenezek esan digunez, eta Interneten begiratutakoaren arabera, Arestik ez zuen Brecht itzuli. Juan San Martinek baditu hainbat itzulpen gaztelaniatik eginak.

Hautaturiko lanen euskal itzulpenak eta alemanera eginiko itzulpenak bilduko ditugu hurrengo bilerarako eta horiek aztertuko ditugu gure bilduman sartzeko modukoak ote diren ikusteko eta moldaketarik behar balute moldatzeko.

### *Hemendik aurrerakoak*

Hurrengo bileretan bilduriko poema horien gainean egingo dugu lan. Aurkitzen ditugun itzulpenak aztertuko ditugu batetik eta itzultzeko daudenak itzuli.

Brechten poemarekin gora eta behera (Meinhofen hileta salatzeako afitxa bat topatu nuen sarean, Elenak etxebizitza baldintzen beste Plakat batekin lotu zuen, Negu Gorriak taldeak Borreroak baditu milaka aurpegi diskoan -diskoko izenarekin ere lotura du-), eta honakoan Strukturelle Gewaltekin lotzen dute Wikipedian.

[http://de.wikipedia.org/wiki/Strukturelle\\_Gewalt](http://de.wikipedia.org/wiki/Strukturelle_Gewalt)

hori ba.

Bis bald,

**Hedoi**

Argitalpenerako Itzulpen proposamenak konpletatzeko: Gaberako aterbea dago, euskaraz baina ez dago Brechten poema originala: Das Nachtlager. Atxikituta bidaltzen dizuet. Interneten aurkitu nuen.

Ondo izan

Feliciano

Bertolt Brecht

Das Nachtlager

Ich höre, daß in New York

An der Ecke der 26. Straße und des Broadway

Während der Wintermonate jeden Abend ein Mann steht

Und den Obdachlosen, die sich ansammeln

Durch Bitten an Vorübergehende ein Nachtlager verschafft.

Die Welt wird dadurch nicht anders

Die Beziehungen zwischen den Menschen bessern sich nicht

Das Zeitalter der Ausbeutung wird dadurch nicht verkürzt

Aber einige Männer haben ein Nachtlager

Der Wind wird von ihnen eine Nacht lang abgehalten

Der ihnen zugedachte Schnee fällt auf die Straße.

Leg das Buch nicht nieder, der du das liesest, Mensch.

Einige Menschen haben ein Nachtlager

Der Wind wird von ihnen eine Nacht lang abgehalten

Der ihnen zugedachte Schnee fällt auf die Straße

Aber die Welt wird dadurch nicht anders

Die Beziehungen zwischen den Menschen bessern sich dadurch nicht

Das Zeitalter der Ausbeutung wird dadurch nicht verkürzt.

Hurrengo orrialdean Arestiaran « Egia esateagatik » poemarekin antza duen Daniel Balavoinen abesti bat (joan den bileran aipatu zuena). Petra.

Frappe avec ta tête

(A l'écrivain argentin)

Paroles et musique : Daniel Balavoine

Cette chanson provient de l'album *Loin des yeux de l'Occident*

Sous la torture  
Derrière les murs  
Les yeux remplis d'effroi  
L'homme aux vœux purs  
Souffre et endure  
Les coups sourds de la loi  
Noyés par les bulles rouges  
Ses mots muets  
S'élèvent et s'écrasent sur la paroi  
L'écrivain plie mais ne rompt pas  
Ressent une étrange douleur dans les doigts  
Délire en balbutiant qui vivra vaincra

Dans la cellule du poète  
Quand le geôlier vient près de lui  
Quand plus personne ne s'inquiète  
L'homme que l'on croyait endormi  
Frappe avec sa tête

A court d'idées  
Ils t'ont coupé  
Et ta langue et les doigts  
Pour t'empêcher  
De t'exprimer  
Mais ils ne savent pas  
Qu'on ne se bat pas  
Contre les hommes  
Qui peuvent tout surtout pour ce qu'ils croient  
Et l'homme infirme retrouve sa voix  
Défie le monde en descendant de sa croix  
Et sort la liberté de l'anonymat

Dans la cellule du poète  
Quand le geôlier vient près de lui  
Quand plus personne ne s'inquiète  
L'homme que l'on croyait endormi  
Frappe avec sa tête

Frappe avec ta tête...

© Editions Barclays-Morris / Rougeagèvre

